

PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Gure proiektuaren izena CCMagic (Clothes Change Magic) da, eta nerabeei zuzenduta dago. Gure eguneroko bizitzan zer behar genuen pentsatzean, ideia hau etorri zitzaigun burura.

Ez zaizu oso astuna egiten egunero arropa aukeratu beharra? Arazo hau konpontzea da gure xede nagusia: hurrengo baterako ez duzu ezta minutu bat galduko arropa aukeratzen.

Gainera, zure outfit-ak zure lagunei bidal dizkiezu; horrela, inspirazioa har dezakete, baita zu zure lagunen ideiak har ditzakezu.

Baina, nola funtzionatzen du gure aplikazioa? Oso erraza da, bakarrik argazki bat atera behar duzu zure arropari eta armairu birtual bat sortu. Horrela zure arropa kontrolpean edukiko duzu. Aplikazio honek, nahi duzun arropa estiloa aukeratzen du. Adibidez, festa batera edo ezkontza batera joan nahi baduzu, aplikazioak egoera horretarako arropa aukeratzen dizu, eta horrela ez duzu pentsatu behar.

Aplikazio honi esker, denbora aurresten dugu gure eguneroko bizitzan, beste zerbaitetan erabili dezakeguna.

Aplikazio hau doan eskuratu dezakezu, eta ziur gaude ez zarela damutuko.

Ez itxoin gehiago eta gure app deskarga ezazu!